

diar herrialdea asaldatuko ote duten. Horregatik, biderik «egokiena» eta errazena aukeratu du Ankarako Gobernuak. Honela, ez batera eta ez bestera, Irakeko Gobernuaren hatzaparretan gelditu da Kurdiar Herria; eta ez dago zalantzarik, Irakek bere neurri zapaltzaileak hartuko dituela, Kurdistanen arazoa betiko ehorzteko,* eta hain berezia den Herria irensteko.

Estatu gehienen axolagabekeriaren «babesean» eta beste Estatu batzuren adiskidego edo etsaigoen* «sareetan» egin da Kurdistanen mende hontako historia larria, beronen bizkarretik egin baitute beren politika eta burutu* baituzte beren akordioak. Baina Estatu haundien harmadek, gobernariak eta interesak orainokoa lortu duten bakarra zera da: Herri bat beren artean banatzea eta ixileraztea; baina ez Herri baten bizinahia eta indarra suntsitzea.

«Herri bat dagoenean, ez du inork nazionalismo oldea* geldieraziko», esan du Mustafa El Barzani buruzagiak. Irakeko, Iraneko, Syriako, Turkiako eta Sobietar Batasuneko gobernamoldeak oso diferenteak dira: ezkerrekoak, erdikoak eta eskuinekoak. Baina, nola edo hala, denak bat etorri dira, Kurdiar Herriaren suntsipena «erabakitzekean». Hala ere, Mustafa El Barzani ez du galdu bere esperantza; eta ez du uste, «bosten» artean ere kurdiarren askatasun arnasa itoko dutenik. **(Patxi Kortabarria)**

TXILE

Askatasun osoa Pinochet jeneralarentzat

Txileko Gobernuak 17 ministruek (14 militar eta 3 herriarri) dimisioa presentatu diote Pinochet jeneralari. Eta hori, «askatasun osoa» honi emateko, ekonomiazko krisia konpon dezan.

Hankaz gora dabil ekonomia Txilen. Ihaz 37 % garestitu zen bizimodua, eta aurtengo lau hilabeteotan 61 %. Pinochet jaunak ekonomiazko estategia nahitaez aldatu behar du. Politikazko diktadura aski* ez delarik, ekonomiazkoa ere ezarriko du oraingoan. Eta gero zer?

Kobrearekin Pinochet jaunak ez du zorte onik izan,



Pinochet jenerala (jezarria)

merketu egin baita ihaztik hona ere. Bestalde, ez du kanpoko laguntzarik. Pariseko Club delakoaren bilkura, esaterako, sine die gerorako utzi da. Eta arazo hori ez da bihar konponduko. Ez da konponduko, Txilen giza askatasunak eta eskubideak onhartzen ez diren arteino.

Herrigizonak sartuko omen ditu oraingoan Pinochet jeneralak Gobernuan. «Herrigizon apolitikoak» izango dira. «Normal» itxura eman nahi dio Txileri, antza.* Zer ez

doa, bada, horren* ondo Txilen, Pinochet jauna? **(Joanes Lekerika)**

FRANTZIA

Bide guztiak Lisboara

Bide guztiak Erromara eramaten omen dute. Frantzia, gaur behintzat, denek Lisboara eramaten dutela, hortaz ez dago dudarik. Hemen modan dago Portugal, Portugal berria.

Portugalen etorkizuna, batipat* bilakabide* iraultzaileak azkartu denetik, horrek interesatzen ditu gizarte aztertzaileak. Higidura* hortan, bi arazo dira nagusi: militarren eginkizuna eta alderdi politikoen jokoa.

Batzuk, militarrek gero eta indar eta aginteremu* gehiago hartzen ari direla azpimarkatzen dute. «Harmadak* sakelean sartzen du iraultza» idazten du Michel Colomès kazetariak **Le Point** astekarian. **L'Humanité Rouge** ezker puntako aldizkariak dioenez, militar horiek sozial faxismoaren botak janzteko aldatu dituzte faxismoarenak. **Rouge** trotskisten aldizkaria ere ez da militarretaz gehiegi fidatzen; nahiago du langileen ekintza.

Eztabaidarik gehienak, alderdi politikoez zer egiten duten eta zer egin behar luketen eta nola jokatu behar luketen aztertzerakoan datoz. Ez dakit Portugalen hala denentz.* Frantzia bai behintzat. (Sarritan, gainera, Portugal ahotan erabili arren, Frantziak mintzo dira.) Frantziako AK Portugaleko Alderdi Komunistarekin ados dago, honen kontrako kritika guztietan eskuindarren jokoa salatuz. Frantziako Alderdi Sozialista Portugaleko Alderdi Sozialistaren jokabidearen alde dago, eta demokraziaren garantia AS dela deklaratu du Mitterrandek.

Politikari asko joaten da Portugalera. Politik eta gizarte gaietaz diharduen asko ere han ikusi da: Althusser, esaterako.* Baina, Bazkotan,* batez ere ezkertiar pila handi bat joan zen hara Frantziatik. Portugaleko burkide* «ezikasiei», hauteskunde* garaian, Frantziako taldeek duten esperientziaren berri emateko. Han ikusi dira maoistak, etab. Espontaneismoa defendatu arren, politikan eta iraultzan deus* ez baita inprobisatzen.

Lisboak Europako pizti arraroa dirudi, Europako Kuba. Publizitateak aldarrikatzen* duen Portugaleko «haizea noa», dirudienek, turistek ez baina (beldur dira hauk*) politikariak arnastuko* dute. Parisen jadanik* «udaberri berorik» ez dagoenez gero, ea, bada, Lisboan beroago egiten duen! **(Joanes Lekerika)**

ERRUSIA

«Hogeigarren Mendea» Moskun

Argitaratu berria da Moskun aldizkari bat, ezkutuko agerkari bat, baimenik gabe aterai* eta ixilean banatua.

«Hogeigarren Mendea» du titulutzat aldizkari honek. Bizpahiru hilabetero argitaratuko da. Asmo gidaria ere ezaguna da, hots,* «Sobietar Batasunean gizarte sozialistaren hazkundera,* sozialismoaren eta demokraziaren elkar hartzeari esker». Idazleak zein marxistak zein ez marxistak izan daitezke: ez dago puntu horretan lege jakinik.

Lehen zenbakia, esan dugunez, argitaratu berria da: daktilografiaturiko hirurehun bat horri. Ba dago hor zer irakur: kontzentrazio zelaietatik itzultako baten oroitzapenak, Soljenitsynek Sobietar Batasuneko agintariak egindako eskutitzaren aurkako erantzun bat, literatur iker-tzapen bat, Stalin eta stalinismoari buruzko estudio bat, etab.

Aldizkari honen zuzendaria Roy Medvedev da. Historilari marxista hau oso ezaguna da. Alderdi Komunistatik jaurtikia izan zen. Marxista segitzen du. Eta demokrazia